



MINISTÈRE
DE L'ÉDUCATION
NATIONALE,
DE L'ENSEIGNEMENT
SUPÉRIEUR
ET DE LA RECHERCHE

*Liberté
Égalité
Fraternité*

Concours externe BAC + 3 du CAPES

Capes externe bac + 3 (CAPES/CAFEP)

Section Langues régionales : Basque

- 1) Exemple de sujet pour la première épreuve d'admission
- 2) Attendus de l'épreuve
- 3) Extrait de l'arrêté du 17 avril 2025

Les épreuves des concours externes du Capes externe BAC +3 (CAPES/CAFEP) section langues régionales Basque sont déterminées dans [l'arrêté du 17 avril 2025 fixant les modalités d'organisation du concours externe du certificat d'aptitude au professorat de l'enseignement du second degré](#), publié au Journal Officiel du 19 avril 2025, qui fixe les modalités d'organisation du concours et décrit le schéma des épreuves.

Capes externe BAC + 3 (CAPES/CAFEP) section langues régionales: Basque
Sujet 0 / Première épreuve d'admission

Le présent dossier est constitué de quatre documents liés à la question de l'émigration dans l'espace mondialisé contemporain et de la frontière. Au cours de la première partie de l'épreuve en langue régionale vous présenterez un compte-rendu analytique et commenté du document video n°1, articulé à l'axe « Diversité et inclusion » de la thématique « Gestes fondateurs et mondes en mouvement », et le mettrez en lien avec les autres documents. Cet exposé sera suivi d'un échange avec le jury. La seconde partie de l'épreuve est en langue française. Vous explicitez l'intérêt culturel et la portée interculturelle du dossier. Cette partie de l'épreuve sera suivie d'un échange permettant au jury de faire préciser ou d'approfondir les points qu'il juge utiles.

Document n°1

« 'Faisaien irla' | Subiranotasun trukearekin eta irlan gorpu batekin hasten da filma »

<https://www.youtube.com/watch?v=pGMgL2eEGGM>



Document n°2

Extrait du roman *Miñan* d'Amets Arzallus Antia et Ibrahima Balde, Susa, 2019

XXII

Gau osoa igaro genuen itsasoan, noraezean. Jendea negarrez hasi zen, batez ere emakumeak, baina ez emakumeak bakarrik, kapitaina ere bai.

Senegaldarra zen. Nik ez dakit nork izendatu zuen espedizio-buru. Itsasoa ezagutzen zuela esan zuen, baina kapitain batek bihotzean indar gehiago behar du, ausartena dela erakutsi, eta hark haur batek bezala egiten zuen negar. Hola zaila da Europara iristea.

Ni nire izpirituaren hegala lotzen saiatu nintzen, ez gehiago pentsatzen, baina ez zen erraza. Amaren aurpegia ikusten nuen begien aurrean. Eta pentsatzen nuen, "Alhassane holako gau batez abiatuko zen".

Itsasoa oso zabala da, gaua bezala. Baina gauak, pixka bat itxaroten baduzu, ertz batean uzten zaitu, eta orduan eguna da, argia sortzen da. Itsasoaren luzera berriro bistaritzen da, eta pentsatzen duzu, *impossible*.

Halako batean zodiaka haizea galtzen hasi zen. Kapitainak jende guztia alde batera mugiarazi zuen, eta zodiaka ia uzkaile zen. Denek egin zuten oihu, eta gero negar. Nik ere bai. Beldurra hezurretaraino sartua nuen. Han, azkenekoz, lau aldeetara begiratu eta denetan gauza bera ikusi nuen: *impossible*.

Batzuek trapuzko *guba* bat zeramaten soinean, beste batzuek bizikleten kautxua bizkarra inguratuz, *une chambre à air*. Nik ez neraman ezer, eta hori karga bat gehiago zen nire kontzientzian. Nik haiek baino esperantza gutxiago neukala kalkulatu nuen.

Hamaikak zero zero. Dena berdin.

Hamabiak zero zero, eta heriotzaren zain gelditu nintzen. Batez ere atzamarrez zodiaka zanpatu eta ohartu nintzenean ez zuela haize gehiagorik, hertzen ari zela erabat.

Hamahiruak zero zero, eta dena berdin. Heriotzaren zain segitzen nuen.

XXIII

Hamalauak zero zero, eta helikoptero bat. Lehenik entzuten duzu, gero ikusten duzu, azkenik sinisten duzu. Bai, helikoptero bat.

Nire ondoko bi neskari *guba*-k kendu eta airean astintzen hasi nintzen.

Ezkerrera eta eskuinera. Ezkerrera eta eskuinera. Besteek ere gauza bera egin zuten. Hori zen gure seinalea. *Guba* guztiak buru gaintan dantzan. "À l'aide, à l'aide".

Helikopteroa, gure alturaraino jaitsi, eta inguruan itzulika hasi zitzaigun.

Helizeek itsasoa harrotzen zuten eta zodiaka ia irauli zen. Denak garrasika ari ginen, "à l'aide, à l'aide".

Ikusi gintuzten, eskuarekin keinu egin ziguten, eta joan egin ziren. Orduan abaildu nintzen. Ama etorri zitzaidan gogora. "Han egongo da herrixkan, zertan ariko ote da?". Helikopteroak ihes egin zuenean handik bizirik ateratzeko itxaropen hondarrrik gabe gelditu nintzen.

Berrogei minutu barru, itzuli egin zen. Lehenik helikopteroa, gero barku bat. *Salvamento marítimo*.

Koloretik antzeman nion, basoan esplikatu zidatelako, "zuek salbatzera etorriko den barkua laranja baten kolorekoa izango da". Huraxe zen. Denak oihuka hasi ginen: "Boza! Boza! Boza!".

Oihu hori afrikarren arteko kantua da. Itsasoko abentura ongi bukatzen denean egiten da. "Boza! Boza! Boza!". Tangerreko edo Nadorreko basoan, *programa* bat Europara iritsi dela jakiten denean, azkar zabaltzen da berria, "atzo ehun lagunek *boza* kantatu zuten".

XXIV

Salvamento-ko barkua gure ondoan gelditu zen, eta soka luze bat eskaini zigun. Lehenik haurrak eta emakumeak igoarazi zituzten. Gu denak oihuka ari ginen, gure txanda eskatuz, eta ondoko ontzitik, "tranquilo, tranquilo", esaten ziguten. Nik frantsesez hitz asko dakit eta segidan pentsatu nuen, "hitz horrek lasai egoteko esan nahi du". Orduan pixka bat baretu nintzen.

Nire txanda iritsi zen. Soka luzatuz barkura igoarazi ninduten, eta estalki bat eta ura eman zizkidaten. Trago bat egin, eta negarrez hasi nintzen. Haur txiki batek bezala egin nuen negar. Gero, zutik jarri, eta ingurura begiratu nuen, nondik nentorren ikusi nahian.

Orain badakit, itsasoa ez da inor esertzeko lekua.

Eta zu, hainbeste aldiz aipatua, nor zaren pentsatzen ariko zara.

Zu agian polizia zara,
komisaria bateko mahai batean nire asiloaz erabakitzen ari dena.
Zuk ikusiko duzu nirekin zer egin.

Edo zu, agian, nire ama zara Fatimatu Diallo
hitz batzuk ostu dizkizut, barkatu,
hau dena ez dizut kontatu orain arte.

Edo zu zara Fatumata Binta edo zu Rouguiatou
nahi nuke jakin dezazun
Ibrahima ez dela zutaz ahaztu.
Baina kontakizun honek zu gehiago ditu, zu zara Ismail
edo zu zara Emi
galdetzen dizut gaur bizi ote zaren, eta non zauzkan zoriak.

Edo zu zara beharbada
orain basamortua zeharkatzen ari zarena,
edo basoan zaudena programa baten zain, zuretzat ere bada informazio hau guztia.

Edo zu zara honaino iristen lagundu didana, Oranen edo Irunen,
zenbat zu.

Edo sinpleki zu zara zu
orain poema hau irakurtzen ari dena.

Esango duzu zu hori ni naiz?

Bai
nahi baduzu
zu hori zu zara,

baina ni ez,
ni Ibrahima naiz,
eta hau da nire bizitza.

Liburu hau Alhassane Balderi eskainia dago

Document n°3

Juanjo Olasagarre, *Ezinezko maletak*, 2004, Susa, p.150-152

(Eleberraren gaia: Carlos Urretabizakaia "Bazter" pertsonaiak duela urte anitz erabaki zuen herritik alde egitea Londreserantz, bere homosexualitatea libreki bizi ahal izateko.)

[...]

Ez itzultzeko. Harritu zuen, amaren gelan, ustez inoiz inora bidaiatu bariko emakume haren gelan bi maleta aurkitzeak. Plastiko berdezkoak ziren: lonazko uhal beltz batzuk zituzten bueltan, gurpil txiki bina bakoitzak, eta ertzeko gidari bati helduz arrastaka eraman zitezkeen. Zabaldu zituen. Hutsik. Barna, kanpoko plastikoak iragartzen zuenaz bestela, belusa koadro berde-morezkoa zen, goxo, luxuzko. Eskua pasatu zuen belusaren laztana sentituz. Arretaz atondu zituen arropa urriak. Sartu-ez-sartu, so egon zitzaien Mikel Laboa eta Hertzainak eta Zaramaren diskoei eta Etiopia liburuari. Hasiera-hasieratik eta errotik egin behar zioat aurre herrinari. Ez zuen, Mikel Laboa lagun, exiliatu mixerablea, gixajo bat, inork maite ez zuen alderraia, bakardadearen errege apatrida, herrinari besoetan kulunkatu nahi. Ez itzultzeko zihoan eta, Harakinek beste testuinguru baterako erabiliko lukeenaz baliatuz, «Borrokan aritu egin behar dik» marmaratu zuen bere artean.

Maletak itxi eta ohean eseri zen. Hemen zaukaat iragana, bi maleta hauetakoa baino ez nauk. Plastiko berdea, uhal beltzak. Ukitu egin zuen. Eskuko leuntasunak eragin bat-bateko gurari sukartsu bati amore emanik pentsatu zuen: Bazekiat damutuko zaidala. Maletak ireki eta arrapaladan sartu zituen diskoak eta liburua. Gero alde batera eta bestera eragin zion buruari, bakarrik egon arren, inork ikusi ez zuela baieztatzeko

Frantziako zelaiak iluntasunagatik ikusezin bilakaturik, autobus barneari erreparatu zion lehendabiziko aldiz argiak izeki zituztenean. «Ordura arteko Londresko ilusioari gain hartu zion herria uztearen min goxoak, eta bertan aterpetu nintzen, baserriko identitateari men eginez» esanen zion Marcki, baserriko identitatea adierazpideak Marcken harridurak sortu plazera aurretik dastatuz.

«Baserriko identitatea?!».

«Lekunberrin, egoera zailenik zailena dela ere, ez dute handik alde egin nahi izaten, ez zaie otu ere egiten, beharbada, eszenatoki berriak arazoak konpon ditzakeela, edo saihestu bederen; ez, bertan gelditzen dira, edo hobeto esanda, bertan diraute, haien patua lurraren patuari kateaturik. Hori da baserriko identitatea».

Frantziako zelaietan barna Londresera zeraman autobusaren burrunba eta epeltasunaren kulunkan bere buruari aitortu zion urtebetetik-edo bazekiena: ametsa ez ziotela itzuliko. Amestutako iraultza hark bere buruarengandiko askapena ekar zekioneko esperantza eta heterosexual bihurtu zedineko beharra ezinezko zitzaizkiola ohartzean, nahi eta ezinaren arteko sarean trabatu zen; bere bizitza ez zuela inoiz irudikatu erabaki behar izan zuen, ametsa kolektiboa baitzen, eta kolektiboan gauzatuko zen banakakoari zegokion afan, nahi eta desira oro. Ohartu zen Lekunberrin egin zuen bidea egitea zela errazena, xenda trazatuari jarraitu, alegia; bere kasuan, ordea, akats bat zegoen, eta akats horrek zeraman orain Londresera; akats horretan zetzan eskura uste izan zuteneko Euskal Herri aske hartako biztanle, aske, esan beharko luke, ez bilakatzeko arrazoia. Baina beti izaten duk akats bat.

Londresen sartzan ari ziren. Marckek askotan galdetuko zion, zer pentsatu zuen Londres ikusi zuen lehendabiziko aldiz. Eta Bazterrek askotan erantzunen zion ez zuela ezer pentsatu, une garrantzitsuetan burua hustu egiten zaigula, edo ergelkeriez bete, edo ezdeuskerietan pausatu, baina nekez izaten garela gure bizitzako une garrantzitsuetan une garrantzitsuak bizitzen ari garenaz jakitun. Kristalaren beste aldean ageri zitzaizkion kale eta joan-etorri haiei xor, Lekunberri Aranazekiko kateamendua berritu zitzaion, eta atzean utzitakoaz oldozka damutu zitzaion lehendabizikoz eta azkenekoz ihes egin eta ezagutzen ez zuen kale zaratatsu haietara etorri izana.

Kolore eta zaratek zartako batez aterarazi zuten Victoria Stationen herrikerietatik. Autobusak sartu-atera zebiltzan etengabe, jende beltza nabar jantzirik, ulertezinak iruditu zitzaizkion aurpegi asiaticoak, emakume hinduak sari gorrikarekin, gazte zuriak kolore biziez jantzirik, 80ko hamarkadako gotikoz mozorroturako arrastoren bat, nerabe batzuen kasete handitik zetorkion musika danba-danbako ezezaguna, eta gidariak autobus bakoitzaren geldialdiak oihuka: Ingalaterran barna gorantz egiten zuten toki haiek: Glasgow, Eskozia, edo mapan ezkererantz eginez gauean Irlandan barneratuko ziren autobusak, beharbada, bera bezalako iheslariez beteak.

Autobusetik jaitsi eta gidari makurtuaren ondoan gelditu zen bere maletari espera.

Les attendus de la première épreuve d'admission

Les attendus de cette épreuve recourent trois grands axes : maîtrise de la langue basque, capacité d'analyse/problématisation à partir d'un dossier composite, et tenue d'un oral structuré en continu puis en interaction.

Maîtrise de la langue basque

L'épreuve sert d'abord à apprécier la qualité de la langue employée : correction morphosyntaxique, richesse lexicale, aisance à l'oral, y compris dans la gestion des nuances (modalisation, registre, connecteurs).

Le jury attend une langue suffisamment sûre pour porter un exposé construit puis un échange de 40 minutes, sans basculer dans un registre de substitution dès que la difficulté augmente.

Analyse du dossier et problématisation

Le candidat doit savoir restituer, analyser et commenter le document audio/vidéo, puis montrer clairement les liens avec les textes et les documents iconographiques.

L'attendu implicite est l'élaboration d'une véritable problématique en résonance avec l'entrée culturelle du programme, et non une simple juxtaposition de résumés de documents.

Structuration de l'exposé

L'exposé doit présenter « de manière organisée les principaux enjeux d'un sujet » : introduction claire (présentation du dossier, problématique, annonce du plan), développement en parties articulées, conclusion ouverte.

Le jury évalue la capacité à hiérarchiser les informations, à dégager des enjeux de sens (linguistiques, culturels, sociolinguistiques, historiques...) et à les articuler dans un fil conducteur explicite.

Dimension culturelle et interculturelle

Le dossier repose sur une entrée culturelle du programme : il est attendu que le candidat en explicite l'intérêt culturel (pour la langue/culture basques, pour les enjeux de transmission).

L'épreuve demande aussi de développer la « portée interculturelle » du dossier, c'est-à-dire la manière dont les contenus permettent de mettre en relation la culture basque avec d'autres espaces linguistiques et culturels, et d'ouvrir à des comparaisons pertinentes.

Conduite de l'échange avec le jury

Pendant les 40 minutes d'échange, le jury attend que le candidat soit capable de préciser, approfondir, voire nuancer les points abordés, en intégrant les remarques et relances. Sont évaluées la réactivité intellectuelle, la capacité à reformuler, à argumenter calmement, et à élargir éventuellement vers des enjeux sociétaux sans perdre la rigueur disciplinaire

Capes externe BAC + 3 (CAPES/CAFEP) section langues régionales: Basque

Réglementation de la première épreuve d'admission

Extrait de l'annexe de l'arrêté du 17 avril 2025 fixant les modalités d'organisation du concours externe du certificat d'aptitude au professorat de l'enseignement du second degré, publié au Journal Officiel du 19 avril 2025

SECTION LANGUES RÉGIONALES : BASQUE, BRETON, CATALAN, CRÉOLE, OCCITAN-LANGUE D'OC

1° Première épreuve d'admission.

L'épreuve prend la forme d'un exposé suivi d'un échange avec le jury qui consiste, à partir d'un dossier constitué de divers documents, à présenter de manière organisée les principaux enjeux d'un sujet.

Le dossier est constitué de quatre documents en langue régionale (un document audio ou vidéo ne dépassant pas cinq minutes, un ou deux textes, un ou deux documents iconographiques) prenant appui sur le programme du concours.

L'épreuve se compose de deux parties.

La première partie de l'épreuve est en langue régionale. Le candidat restitue, analyse et commente le document audio ou vidéo, puis en explicite les liens avec les autres documents du dossier. Cet exposé est suivi d'un échange avec le jury.

La seconde partie de l'épreuve est en langue française. Le candidat explicite l'intérêt culturel et la portée interculturelle du dossier. Cet exposé est suivi d'un échange permettant au jury de faire préciser ou d'approfondir les points qu'il juge utiles.

L'épreuve vise à apprécier la qualité de la langue employée dans les deux parties de l'épreuve. Elle vise également à évaluer la capacité du candidat, à structurer son propos, à analyser de manière organisée des documents de nature variée, à en présenter les principaux enjeux de sens dans le cadre d'un oral en continu, puis en interaction avec le jury.

Durée de la préparation : trois heures.

Durée de l'épreuve : une heure.

Chaque partie dure trente minutes (exposé : dix minutes, échange : vingt minutes).

Coefficient 5.

L'épreuve est notée sur 20. La note 0 est éliminatoire ;

2° Seconde épreuve d'admission.

Cette épreuve est présentée à l'article 4 du présent arrêté.

Durée : trente-cinq minutes.

Coefficient 3.

L'épreuve est notée sur 20. La note 0 est éliminatoire.